

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA

# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
apirilaren 6a  
536. zenb.



**Kirol bat baino gehiago**

# Edertasunaren Gida

**CARMEN**

**Ile apaindegia  
Solariuma**

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

*Jose Antonio*

GIZONEZKOEN  
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

**SUSI**  
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea  
Tel.: 943 79 50 27

**ILE  
A**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

*Lurrindegia* *perfumeria*

**ZARRAOA**

Kanpandorpea, 4  
Tel.: 943 79 12 19

- ▲ Larruzko artikulua
- ▲ Bisuteria
- ▲ Opariak

*Aholkularitza  
estetika eta  
makilajea.*

LANCASTER

GUERLAIN

Elizabeth Arden

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

**EDERTU**

- Ileapaindegia
- Solarium bertikal eta horizontala

*Eskaintza berezia  
solariumean*



San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

*Lore*



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL

Ayer

HR

CLARINS

BIO-TERM

VALMONT

**Miren Garai**  
ESTETIKA ZENTRUA

LODITASUNA ETA BARIZEAK

*Aguinaga Doktoorea (L806)*

- Zimurretako CO<sup>2</sup> lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpalnen handitzea
- Liposukzioa edo lipoeskultura
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Aurpegiko orbanak
- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberitze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroz
- Depilazio elektriko
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

LASER BIDEZKO DEPILAZIOA MEDIKUAREKIN

Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90

*M L*  
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

## urteurrenak

### Udalaren eta AEDren arteko hitzarmena

■ 60. zenb.  
(1990-04-20)

Udalak, AEDrekin sinatutako hitzarmenaren bitartez, hainbat ekimen diruz laguntzeko akordioa egin zuen. Horien artean, AEDko azpiegiturari eustea, sensibilizazio lanak, Jokin Zaitegi eta literatura lehiaketak eta ATBn eta Arrasate Pressen langileak kontratatzea. Horrez gain, bi erakundeek kultura ekintza bateratuak antolatzea erabaki zuten.

### Arrasate Musikal aztergai

■ 60. zenb.  
(1990-04-20)

Arrasate Musikalen egoera ona ez zelakoan, udaleko Hezkuntza batzordeburu Aitor Orobengoak txosten bat prestatu zuen, eta apirilaren 10ean udaletxean aurkeztu zuen. Bi proposamen egin zituen Orobengoak: Arrasate Musikal eskualdeko kontserbatorio publiko bihurtu edo akademia pribatu izaten jarraitu. Batzordeburuaren ustetan, egokiena lehen aukera izango litzateke, baina aztertu beharra zeukaten.

### Itzilu latzak Osakidetzan

■ 60. zenb.  
(1990-04-20)



Eskualdeko ospitaleko eta anbulatorio-ko langileek greba mugagabeari ekin zioten. Osakidetzak maiatzean deialdi publikora atera beharreko lanpostuen adjudikazioan, behin-behineko langileek urteetan egindako lana balora zedin eskatu zuten. Ospitaleko 60 langilek eta anbulatorioko 17k talde iraunkorra osatu zuten, eta liburutegia okupatu eta gutxieneko lanak ez egitea erabaki zuten. Zuzendaritzak behin-behineko langile baten lana oztopatzeagatik Ertzaintzari deitu eta kalera atera zituzten grebalariek.

## besteek esana



Aldizkarigintzan arrakasta eredu asmatuta dago, baina ezin da lorik hartu. Interneterako jauzia egin beharra dago, horrelako iraultzetan lekua hartzea komeni baita, idatzizkoa ahaztu barik. Telebistan, berriz, erdarazkoak ari zaizkigu tokia jaten, eta esango nuke toki-telebistetan, euskarazko eskaintza, erdarazkoen aldean, proportzioan, orain bi urte baino txikiagoa dela. Euskarazko telebistek lehenengo izan behar dute, oso zaila izango baita lekua aurkitzea. Bestalde, gizartearekiko loturak estutu beharra daukagu, honek bere-bere senti gaitzan. Kalitatearen aldeko apustua egin beharrean gara, baina ez da hori bakarrik, komunikabide-eredua ere bada.

**Estepan Plazaola**  
GOIENA KOMUNIKAZIO  
ZERBITZUAK KOOPERATIBAKO  
LEHENDAKARIA  
**Euskaldunon Egunkaria**  
(2001eko martxoaren 30a)

## aurkibidea

- Lehen begiratua . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Inkesta . . . . . 5
- Astearen errepasoa . . . . . 6
- Astearen aurrerakia . . . . . 7/8
- Korrika . . . . . 9
- Txutxumtxuak . . . . . 10/13
- Aurrez aurre . . . . . 14/15
- Zaldibar areto futbolak . . . . . 16
- Kirolak jokoan . . . . . 18/20
- Kulturaren txokoa . . . . . 21/22
- Auzoz auzo . . . . . 23
- Hazi eta hezi . . . . . 24
- Uhinetan barrena . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . 26



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak), Oñateko kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa).  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euska.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Leguntzaila:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitate:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berebizar. (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakia:** Lorea Aguiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrizola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Arrasateko Udaleren laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## ZERBITZUAK

### Eritotxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igalatorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Delak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan . . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturride Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Zapatua</b>	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Domeka</b>	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jaiegun bezpera eta zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## pasaian egonaldia

Topaguneko Gazte Sailak Pasaiko aterpetxe baten egonaldia antolatu du apirilaren 18tik 20ra. 14-18 urte bitarteko gazteen-

dako ekintza da. Tailerrak ere egingo dira. Izena emateko azken eguna: apirilak 6.

## eskulan eta dantza ikastaroak

Ekin Emakumeak elkarteak eskulan eta dantza ikastaroak antolatu ditu apirilaren 24 eta 25etik aurrera. Argibide gehiagorako edo

izena emateko, deitu 943 77 12 28 telefonora.

## taila ikastaroa

Hastapen mailako taila ikastaroa antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Apirilaren 23an hasiko da. Izena emateko edo argi-

bide gehiagorako, deitu Felixi (943 79 40 79) edo Jose Mariri (943 79 77 57).

## gazte txokoak

Datorren astean, honako ekintza hauek antolatuko dituzte gazte txokoek: hilaren 9an, Txan magoaren saioa AEDko tabernan,

19:30ean; 10ean, DJak Erguingo egoitzan; eta 11n, askaria.

## zerbitzuak aste santuan

Apirilaren 12tik 16ra, Musakolako kiroldegia 08:30etik 13:30era izango da zabalik, eta igerilekuak 09:00etatik aurrera. Udaletxea,

Iturripeko kiroldegia, Monterron kultura etxea eta gazte eta sexologia bulegoak itxita egongo dira egun horietan, 12a eta 16a barne.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 6

- Azkoaga, Iturriotz

### Zapatua, 7

- Corcuera, Aranbarri

### Domeka, 8

- Irizar, Erguin

### Astelehena, 9

- Amezua, Santa Marina

### Martitzena, 10

- Zabala, Zarugalde

### Eguaztena, 11

- Ruiz, Magdalena

### Eguena, 12

- Morales, Araba



**TOLDOS LECE**

**Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto**

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83  
Faxa: 943 77 04 45

# San Juan de Diosko langileak protestan

## Udaberriak badu zugan eraginik?

Aldaketa handiko urtaroa hasi berri dugu



**Javier del Campo**  
(Langilea)

Ez, ez dut eraginik sumatzen, betiko moduan egoten naiz.



**Mari Fernandez**  
(Langilea)

Ezertxo ere ez.



**Pablo Gutierrez**  
(Langilea)

Bai, poztasuna ematen dit.



**Igor Fernandez**  
(Ikaslea)

Bai; pozik egoten naiz, eta gauzak egiteko animosoago izaten naiz.



**Juan Fernandez**  
(Langilea)

Nigan, zuzenean, ez; baina, semetxoak alergia eta asma du.



**Oihana Martinez**  
(Ikaslea)

Poztasun pixka bat ekartzen dit, baina uda iragartzen duelako, besterik ez.



**Mainer Arroyo**  
(Ikaslea)

Bai, badu: alaitasuna eta baikortasuna ematen dizkit, batez ere, eguraldi ona dagoenean.



**Blanka Elizondo**  
(Etxekoandrea)

Ez alergiairik, ez poztasunik... betiko moduan nago.



**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



**BASATI**  
**TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

Tel. 943 711768

## USTEAK USTE

### Bat-batekotasuna eta zirrara

**B**i urtetik behin bakarrik izaten dugu bere berri. Zalaparta asko ateratzen du. Albotik zitzu bizian igarotzen bada ere, arrasto sakona uzten du. Ez da maitale hain berezi edo kutunetako bat (edo agian bai), baina honek ere oroimen eta bizipen zirrargarriak sortarazten dizkigu alboan daukagunean, eta baita ondoan bizitakoa gogoan dugunean ere.

Izugarria izan da Korrikak aurten (ere) jaso duen harrera beroa, batez ere, Arrasaten, baina baita bailarako beste herrietan ere. Gau edo goizaldeko ordu txikietan izan bada ere, udalerrri bakoitze-ko elkarteek, zenbait udaletzek eta herritar ugarik parte hartu dute, euskarari eta AEKri babesa ematea helburu nagusi hartuta. Txalogarria oso, euskarak eta euskaldunok bizi ditugun jazoera latzen aurrean halako ekimen sinboliko bezain esanguratsu hori antolatzea, eta baita ere berau babestu eta ekimenean parte hartzea ere. Zorionak!!

Iker Barandiaran

## astea bi hitzetan

### ■ Mus lasterra

SUDC batzordeak antolatuta, elkartearen arteko XXXIII. mus txapelketa jokatu zen zapatuan. Hama sei elkartek parte hartu zuten, eta iazko legez, aurten ere, mus lasterra izeneko karta jokoak egin dute. Lehen, 3-4 hilabetearen egoten ziren lehiaketan, eta aurten, berriz, 16:00etan hasita, 19:30 inguru arte egin zuten. Ekitaldi guztiak (karta jokoak, sari banaketa eta afaria) Txalaparta elkartearen egin zituzten. Antolatzaileek esan dute txapelketa arrakastatsua izan dela: "Iaz baino partaide gehiago egoteaz gain, 22 elkartetik 16k parte hartu dute, eta hori asko da".

Lau sari banatu zituzten: Uribarri elkartearen izan zen irabazlea, Herri Gain elkartearen bigarrena, Santamaña elkar-

tea izan zen hirugarrena eta Txalaparta laugarrena.

### ■ Urte ona

Pasa den egubakoitzean, Musakolako erretiratu egoitzako bazkideek urteko batzar orokorra egin zuten. Iazko jardunaldiari begira, urte ona izan dela adierazi zuten. Era berean, zuzendaritza batzordeko karguak berretsi zituzten beste urtebetez. Izan ere, egoitza berriaren arazoa konpondu arte, oraingo zuzendaritza batzordeak segituko duela erabaki dute. Horrela, bada, Andres Inda izango da aurten presidentea, Jose Ramon Petreñas idazkaria, Pedro Miguel Otxoa presidenteordea, eta diruzaina, berriz, Jose Bengoa.

Hirurogeita hamar bat bazkide egon ziren batza-

rrean, eta gero, hamaiketakoa egin zuten.

### ■ Goienaren asmoak

Goiena kooperatiba jendaurrean aurkeztu zen pasa den zapatuan. Besteak beste, aurrera begira hiru erronka nagusi dituela jakinarazi zuten batzarrean: telebistari dagokionez, GOITB Debagoien osora hedatzea; prentsa idatzian, maiatzetik aurrera bailarako aldizkariaren formatua aldatzea, Goienkaria egunkari bihurtzeko aukera aztertuz; eta hirugarrena, hiru bat urteko plan estrategikoa egin, hedabideen nondik norakoak finantzatzeko. Ehundik gora lagunek parte hartu zuten aurkezpenean, tartean, Diputazio, Jaurlaritzako, MUKo eta inguruko udaletako ordezkariak.

### ■ Aste kulturala institutoan

Eskaintza zabala izan du aurten Arrasate-Aretxabaleta institutuko kultura asteak. Hitzaldiak eta zinema izan dira ardatz. Arrasateren, munduko desberdintasunen, euskararen, desobedientzia zibilaren eta Euskal Herrirako irtenbideen inguruko berbaldiak izan dituzte, Jose Maria Velezen, Harkaitz Canoren, Gesto por la Pazen, Senideak-en eta Elkarriren eskutik, besteak beste.



**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

## San Juan de Diosko langileak protestan

Oinarritzko soldaten igoera eta lanorduen murrizketa eskatzen dute San Juan de Dios ospitaleko langileek. Ez daude konforme Gipuzkoako klinika pribatuen hitzarmenarekin eta patronalak emandako erantzunarekin. Soldatei dago kienez, osasun publikoko langileek, esaterako, 205.000 pezetako soldata dute, eta osasun pribatukoek, berriz, 118.000koa. Eta ordukin ere antzera gertatzen da: osasun publikoan, 1.592 ordu sartu behar dituzte urtean, eta pribatuan, 1.754 ordu. Soldata eta lanorduak parekatzea eskatzen dute. Eta hori eskatzeko, hain justu, mobilizazioak egin



dituzte astean. Arrasateko langileekin batera, Tolosako eta Donostiako klinika pribatuetako langileak ere egon ziren protestan. San Juan de Dios

ospitale psikiatrikoko langileei soldata egoera ukatzeko arrazoia zera da: pabilioi berrietako amortizazioak galera moduan hartu dituztela.

## Lekuko beharra

Ertzaintzak lekukoak behar ditu Bergaran izandako istripu bat argitzeko. Astelehenean gertatu zen istripua, Nissan Trade markako furgoneta batek eta Renault Megane markako auto batek aurrez aurre jo zutenean. Kolpearen ondorioz, bi lagun zauritu ziren eta eskualdeko ospitalera eraman zituzten, bata zauri larriekin.

Orain, Ertzaintza ezbeharra argitzen dihardu eta lekukoak behar ditu. Zerbait jakinez gero, 943 76 53 40 telefonora deitu behar da.

## Datorren martitzenean, greba orokorra

Arrasateko ezker abertzaleak grebarako dei egin du datorren martitzenerako. Pentsaurreko baten bitartez egin zuten deialdia, eta han adierazitakoaren arabera, Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoen defentsarako greba izango da. "Azkenaldian bizi izan ditugun errepresio saiakera guztiak" ere salatu zituzten, eta Euskal Herriaren burujabetza aldarrikatu zuten.



Seberren, 19:30ean. 22:00etan, burrunba auzoetan (Zigarrolan, San Antolin ikastetxean; San Andresen, Herri Eskolan; Erdialdean, Seberren; eta Uriben, Iturripi kiroldegian). Horrekin batera, lantegietan itxialdiak egingo dira eta kan-

paldia egingo da Monterronen. Martitzena, 10: greba orokorra.. 10:00etan: manifestazioa Seber Altuben. 12:00etan: manifestazioa Seber Altuben. 19:30etan: manifestazioa Seber Altuben.

## Txakur zainketa

Kalean agertzen diren txakurrak jaso eta Bergarako txakurtegira eramateko hitzarmena egin du Arrasateko Udalak Bergarako Elurra enpresarekin. Horren arabera, hemendik aurrera herria galduta agertzen diren txakurrak hartu eta hara eramango dituzte, eta han biziko dira jabea azaldu bitartean. Hilabete igaro eta gero, jaberik agertuko ez balitz, txakur horiek edozeinek jasotzeko aukera egongo da.

Erabakia gobernu batzordeak hartu zuen, eta berez, atzo berretsi behar zuen udalbatzararak. Baina, albiste hau idatzi dugunean, osoko bilkura egin barik zegoen oraindik, hortaz, ez dakigu proposamena onartu den edo ez.

### EGITARAUA

Horrekin batera, antolatu duten egitarauaren berri eman zuten: Egubakoitza, 6: auto ilara, Arbolapetatik, 18:00etan. Astelehena, 9: manifestazioa,

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**HIES  
BERRI**  
Tel.: 943 79 26 99

**Monte  
taberna**  
Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## Azokako saltoki hutsak zozkatuko dituzte

Azokan hutsik dauden zazpi saltoki zozkatzeko proposamena egin dio Zerbitzu batzordeak udalbatzarrari. Emakidak, kontzesioak, bi taldetan banatuko dira: batetik, eguazten eta egubakoitzetarako (gutxienez, 10.000 Pta/m<sup>2</sup>ko), eta bestetik, astelehen, martitzen, eguen eta zapatuetarako (gutxienez, 5.000 Pta/m<sup>2</sup>ko).

Bost urterako emakidak izango dira, eta urtero berritu daitezke, bost aldiz, asko jota.

Gai hori landu zuten, besteak beste, atzo osoko bilkuran. Horrekin batera, beste 20 gai zeuden aurrez ikusita.

### AUKEA

Esaterako, AUKEAko zuzendaritza batzordean kirol taldeen ordezkari berria izendatzeko proposamena. Edurne Madinabeitiaren ordeza, Juan Manuel Apaolaza izendatzea da asmoa.



Horrekin batera, zaborra batzeko edukiontzi pribatuen baimenak ematea ere aztertu zuen udalbatzarrak.

Eta Markuleten jatetxe edo antzeko zerbitzu jartzeko adjudikazioa ere aztertu zuten. Datozen 50 urteotarako izango da emakida, eta egin beharreko jatetxea edo bestelako negozioa 18 hilabeteren buruan amaituta egin behar da.

Bukatzeko, lau mozio boz-

katu zituzten: Denontzat plataforma etxebizitza duinaren alde aurkeztutakoa, EAK eta EAJk ETAREN azkenengo atentatuak gaitzesteko aurkeztutakoa eta PSE-EEk Froilan Elesperen aurka egindako atentatu gaitzesteko aurkeztutakoa.

Edozelan ere, arestian aipatu moduan, albiste hau idazterakoan osoko bilkura egin barik zegoen, hortaz, ez daki-gu zein erabaki hartu dituzten.

## Zuzenketa

Pasa den astean adierazi genuen Ertzaintza Julen Mendizabal gazte arrasatearraren bila ari dela, Madrilgo Epaitegi Nazionalaren aginduz. Gaineratu genuenez, gazte horren familiaren etxea ere miatu zuten. Aldiz, Julen Mendizabalen familia adierazi digunez, inork ez du miatu euren etxea eta inork ez die jakinarazi Julen atxilotzeko agindurik dagoenik.

## Bi semaforo


Takolo-Tokialai gunean bi semaforo ipintzea erabaki du udalak. Zirkulazioak ibiltariengan eragiten duen arriskua dela eta hartu du erabakia, eta dagoeneko lortu du foru aldundiaren baimena. Bi milioi eta erdi pezeta erabiliko ditu udalak semaforoak ipintzeko.

## Telefonoen antenak

Poltsikoko telefonoen antenen instalazioak bertan behera geratuko dira urtebetez, Ingurumen Batzordeak egindako proposamen bat jarraituz. Bitarte horretan antena horien ezarpena kontrolatuko duen araudi bat egingo dute eta, era berean, gaur egungo egoera zein den ikusteko azterketa ere egingo dute.

## 50 milioi!

ONCE erakundeko Jose Laderas saltzaileak 50 milioi pezeta utzi ditu Mondragoen. 24.307 zenbakiko 10 kupoi saldu ditu Hiper Eroskin duen saltokian eta bakoitzari bost milioi pezetako saria egokitu zaio. Eroskiko saltoki berean beste 50 milioi pezeta banatu ziren 2000. urteko uztailean. Bestalde, Bergaran ere diru kopuru bera banatu zen, due-la lau bat aste.



Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super  
**Armeko**

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia  
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07



# Korrika Mondragoen



15:30ean Korrika Txikia onean



Hauek, Korrikatxoa egin zuten



Hau bai zirrara, lekukoa eramatea!!



[www.irratia.com/ek](http://www.irratia.com/ek) Arrasate Irratitik eman zuen Korrikaren berri



Eta gero, bolo-boloa, askaria eta dantzaldia



Lazkanorekin eta Mañukortarekin afaia motorrak berotzeko

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta  
zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## BIHOTZETIK AHORA

Euskadiko VI. saeta lehiaketa ari da jokatzen asteotan, eta hirugarren kanporaketa Al-Andalusen jokatu zen zapatuan. Nahiz eta koplari mondragoetarrik ez egon, aretoa jendez gainezka geratu zen. Handik finalistak irten ziren: hiru ermuar, hain zuzen.



### AMAIA ARANA

Musakolar hau da Udal Euskaltegiko idazkari akademiko berria. Edurne Muxikari hartu dio txanda Amaiak. Nerea

Maiztegi zuzendariarekin egingo du lan datozen hiru urteotan. 15 urtez izan da euskara irakasle Amaia Arana, lehenengo Portugaleten eta gero Arrasaten.



## GIZONAK, PENAZ

1940an jaiotako emakumeak iaz hasi ziren kinto ospakizuna egiten, eta aurten ez dute hutsik egin: 57 lagun elkartu ziren zapatuan. Gizonek ez ei zuten gura emakumeekin batera egitea. Baina, ziur, gizon bat baino gehiago gogoz geldituko zela.



## WILLKOMMEN!

Alemaniaiko Nuremberg hiriko 24 ikasle dituzue hemen. 16 urte dituzte, eta gaztelania ikastera eta Debagoiena bisitatzera etorri dira, Arizmendi ikastolarekin truke programa baten bidez. Joan den martitzenean, GOITB, Arrasate Irratia eta Arrasate Press ikusten izan genituen.



**Loramendi kirolak**

Udaberrirako prest!

[www.loramendikirolak.com](http://www.loramendikirolak.com)

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



**AROSTEGIA  
LAGUN**

Garagaritza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baserría) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltzaritza



**Iztue Irurzun**

Igeltzaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./Faxa: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

**TRANZABAL**



**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



**ION LEIHOAK**

PVC • Alumino RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 11 35



**RRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak  
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**  
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Margoak

**APAIN**

**MARGO ETA APAINKETA**

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Erakuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63



Loramendi 7, 2 behea  
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87


## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1  
Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu  
nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91  
telefonora



## ALBERTO IÑURRATEGI, GOITB-N

Alberto Iñurrategi atxabaltarra GOITBn izan zen joan den egubakoitzean, eta Oinak Izarretan egitasmoa aurkeztu zuen. Gasherbrum I-a zortzi mila-koa igotzen saiatuko da aurki. Zorte on, Alberto!



## BORDINISEKIN, ZERURAINO!


Txundituta utzi zuten jendea Bordinis orekari alemaniarrek. Laubide plazan egin zituzten hiru emankizun. Ia 60 metroko altueran ibili ziren, kable gainean: oinez, takarradan eta motoz.



## KARMELE GARAI ETA INAXIO OLAIZOLA

*Iritsi da eguna  
Bikote laguna  
Ospatzeko elkarrekin  
Zuen urteurrena*

*Hartzazue gaurkoan  
Besarkada bana  
Ta beste hainbeste urte  
Elkarrekin pasa*



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

*Lore*

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**Hilbera**  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**"PAL"**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

# JOSE LUIS EZKURRA (MONDRA TALDEKO PRESIDENTEA)

## «Ni, lantaldeko bat gela»

Arrasaten jaio, Bergaran bizi, eta ezkondu ondoren Arrasatera itzuli zen Jose Luis Ezkurra.

Esan beharrik ez dago futbola dela Mondrako presidentearen zaletasun handienetakoa bat, handiena ez bada, eta bere ametsa Arrasateko futbol taldea dagokion tokian ikustea da. Neure buruari galdetzen diot zein den Mondraren benetako tokia. Jose Luisek oso argi dauka: hirugarren maila.

— Zenbat urte Mondrako presidente?

— Azkenengo zazpi urtetan izan naiz Mondrako presidente, baina taldeko zuzendaritzan hogeita bi urte daramatzat.

— Mondra ala Athletic?

— Mondra. Bizitza erdi talde honi eskaini diot, eta futbolearen ere gehien maite dudana da. Hortik aurrera, eta lehenengo mailako taldeen artean bat aukeratu beharko banu, duda barik, Athletic

dut gustukoan. Hala ere, Mondrako presidente naizen neurrian, Realak da gurekin hobeto portatzen den taldea. Athleticekin izan dugu harremana, baina Realak gure eskuin eskua da. Azkenik, esan beharrra daukat Alaves taldearekin ez dugula oso harreman onik izan.

— Presidente gutxi ikusi ditut nik zelaia margotzen.

— Gaur egun, zer da presidente izatea? Talde profesionalean ez dugu sekula presidente bat ikusiko zelaia margotzen, baina ni lantalde bateko pertsona bat gehiago besterik ez naiz, eta momentu horretan inork ezin badu zelaia margotu, nik ez daukat inongo arazorik lan hori egiteko.

— Zergatik dago taldea erregional mailan?

— Taldea erregional mailara jaitsi zenean, gure helburua argia zen: entrenatzaile bat finko hartu eta bi urteren buruan taldea goiko mailara igotzea. Hala ere, entrenatzaile horrek eskaintza hobea

jaso eta taldea utzi zuen. Aurretan, talde gaztearekin eta entrenatzaile gaztearekin, Mondra aurrera atera gura izan dugu, baina bai taldeak eta baita entrenatzaileak ere denbora behar dute.

— Arrasateko beste talde batzuekin alderatuz, futbolariek dirulaguntza asko jasotzen ditu.

— Bai, eta ez dago inongo dudarik, gainera. Baina, nire ustez, Arrasate herri aberatsa da, eta kirol talde guztiek jeneralean dirulaguntza txikiak jasotzen dituzte. Hainbat urtetan, Arrasateko zenbait talde goi mailan ibili ziren: eskubaloia, saskibaloia, errugbia... Baina orain, guztiok ere justu-justu gabiltza.

— Errugbi partidura joan aurretik, Atxabalpeko futbol zelaiko belarra luze samar dagoela entzun dut. Gero, errugbi zelaira joan eta belarra eta lokatza ia belauetaraino.

— Bai, oso kontraste handia dago, baina guk ez daukagu horren errurik. Argi daukat lan handia egiten dugula Arrasateko futbol taldearen

«Partidua galtzeak baino, zelan galtzen den ematen dit benetako amorrua»

# «Lago besterik ez naiz»

alde, eta egia da udalak dirulaguntza ona ematen digula, baina horrekin ez da gutzia egi-ten. Atzetik ere lan handia dago.

**— Jarri duzun kristalik garestiena?**

— Ez dakit; etxeko taldearen atean jarriko nuke kristal lodi bat, horrela, arerioek ezin-go lukete golik sartu.

**— Egin duzun lan zailena?**

— Lan guztiak gustura egin ditut, eta nire ustez, gus-tura lan eginez gero, lana ez da zaila. Lan zailak, bestalde,

atsekabez egiten dira.

**— Zer deritzozu Realeko presidente berriari?**

— Hasieran, ez neukan batere argi; presidentea baino, askotan bere lantaldea izaten da garrantzitsuagoa. Baina, orain gutxi esan didate Etxarrik jarraitu egingo duela, eta hori niretako oso albiste ona da.

**— Presidente karguan izan duzun momentu hunkigarriena?**

— Momentu hunkigarri asko izan ditut. Taldeak ira-

bazten duen bakoitzean, momentu berezia izaten da.

Bai, baina gaur, partiduko azken minutuak ez dituzu ikusi ere egin.

(barreak) Hunkigarria irabazi eta gero izaten da, baina azkenengo minutuetan asko sufritzen dut, eta nahiago dut ez ikustea.

**— Eta momentu txarre-na?**

— Momentu txarrak ere asko izan ditut. Taldeak galtzen duen bakoitzean, esate-rako, baina partidua galtzeak baino zelan galtzen den ema-

ten dit benetan amorrua, eta azken urteetan, askotan, modu txarrean galdu izan dugu.


**— Zer falta zaio Arrasa-teri?**

— Galdera zaila da. Fal-tan baino, soberan daude gau-za asko, eta horietako bat auto-ak dira. Nire ustez, denok ika-si beharko genuke autoa gutxia-go erabiltzen, edo behar dene-an bakarrik erabiltzen.

**— Presidente izango ez bazina, zertan igaroko zenu-ke denbora libre-a?**

—Familiari eskainiko nio-ke denbora luzeagoa. ■

## EDERTASUNA: EGUNEROKO ARDURAREN ETA NORBERAREN ONGIZATEAREN EMAITZA



### Gorputz eta aurpegi tratamenduak

OSTAR	Elektroestimulazioa
Ultrasoinuak	Hidratazioa
Presoterapia	Erreafirmatzailea

### Estresaren aurkako tratamenduak

Masaje erlaxagarria	Hidromasaje
Mar Muertoko lokatzak	bainuontzia
Presoterapia	Enplastoak
	Erreafirmatzailea

### Beste zerbitzu batzuk

Makillaje iraunkorra	Dieta
Depilazioa	pertsonalizatuak
laserrarekin	Barizeak
Liposukzioa	Presoterapia

Solariuma: Zutikakoa eta etzandakoa (dutzarekin)  
Bonoa: 10 saio + 1 doan = 9.000 pta.



ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

# LIRAIN

Bixente Ferrer, 1Tel./Faxa: 943 79 52 17

## Emaizak

## Sailkapenak

### A taldea

Txeyenex 1 - The pippol 0  
 Komando Alpargat 2 - Dribling 12  
 Leya 9 - Kanp Harrobia 5  
 Serengeti 1 - Betrayer 14  
 AL Ion 1 - Katxiporra 0  
 IKP 9 - Lasagabaster 4  
 Makanaki FC 0 - Bikain Akad 1  
 YK Azkena 3 - AC Surcos 9  
 Goma2 5 - Aurrera Bolie 5

### B taldea

Rayo Aldeano 15 - Abocajarro 4  
 Sas T 2 - Iriztu 9  
 AT Celaya 11 - New Makai 0  
 Full Duplex 3 - Irati STS 9  
 Alai Gozokiak 2 - Etxerat taberna 12  
 Pepelus.com 6 - DKB Kobate 2  
 Usotz Potroak 1 - EPEH 0  
 AKTA 1 - Frangel Gol 0  
 KJ Basati 6 - Kamasutra 4

### A taldea

	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	17	14	1	2	101	136	<b>29</b>
Aurrera Bolie	17	11	3	3	71	45	<b>25</b>
Bikain Akad	17	10	4	3	96	60	<b>24</b>
AC Surcos	17	10	4	3	85	66	<b>24</b>
YK Azkena	17	11	2	4	68	55	<b>24</b>
Kom Alpargat	17	11	1	5	75	75	<b>23</b>
Goma2	17	9	4	4	75	56	<b>22</b>
IKP	16	10	1	5	69	61	<b>21</b>
Lasagabaster	17	9	2	6	80	61	<b>20</b>
Leya	16	6	4	6	49	49	<b>16</b>
Serengeti	16	5	3	8	44	91	<b>13</b>
Txeyenex	17	6	0	11	55	72	<b>12</b>
Kanp Harrobia	17	5	1	11	48	84	<b>11</b>
Katxiporra	17	5	1	11	42	61	<b>11</b>
Betrayer	16	3	3	10	70	73	<b>9</b>
AL Ion	17	4	1	12	62	116	<b>9</b>
Makanaki	17	2	1	14	15	25	<b>5</b>
The Pippol	17	0	0	17	7	26	<b>0</b>

### B taldea

	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Iriztu	16	14	1	1	85	25	<b>29</b>
AT Celaya	16	12	1	3	81	46	<b>25</b>
Rayo Aldeano	16	11	2	3	110	50	<b>24</b>
Etxerat	16	11	2	3	102	50	<b>24</b>
Irati STS	16	11	1	4	100	50	<b>23</b>
Kamasutra	17	10	3	4	86	48	<b>23</b>
Usotz Potroak	16	9	2	5	68	37	<b>20</b>
Akta	17	9	1	7	67	56	<b>19</b>
Pepelus.com	16	9	0	7	59	56	<b>18</b>
Frangel Gol	16	7	1	8	57	52	<b>15</b>
DKB Kobate	16	6	3	7	52	56	<b>15</b>
KJ Basati	16	6	1	9	74	75	<b>13</b>
Full Duplex	16	6	1	9	52	63	<b>13</b>
EPEH	16	6	1	9	41	61	<b>13</b>
Txotx	16	3	2	11	37	75	<b>8</b>
SasT	16	3	1	12	31	98	<b>7</b>
Abocajarro	16	3	0	13	53	106	<b>6</b>
Alai Gozokiak	16	2	2	12	39	91	<b>6</b>
New Makai	16	2	1	13	31	120	<b>5</b>

### PARTIDU INTERESGARRIAK

A multzoko partidu gehienak jokatu badira ere, oraingo asteburuan bi partidu bakarrik jokatu dira, baina badirudi sailkapenari begira aldaketa gutxi izango dela, eta IKP taldea izango dela hurrengo aldia

jokatuko duen A multzoko zortzigarren taldea.

B multzoan, aldiz, talde askok lortu dute bigarren aldirako txartela. Horietako batek, Usotz Potroak-ek, deskantsua izango du oraingo asteburuan, eta partidu interesgarrienak Aktak eta Pepelus.inserso.com

taldeek jokatuko dute: bi talde horiek jokoan ezer ez dutenen aurka neurtuko dituzte indarrak, eta nork daki, prima ere egon daiteke, afariren bateko.

Sailkapenari begira partidu interesgarrienak horiek izango badira ere, partidu poli-

tenak zapatuan, eguerdi partean, izango ditugu. B multzoko goiko postuetako taldeak izango ditugu aurrez aurre. Lehenak hirugarrenaren aurka jokatuko du, eta bigarrenak laugarrenaren aurka.



## Hurrengo partiduak / 18. jardunaldia

### Apirilak 7, zapatua Zaldibar

		Epailea
09:50	DKB Kobate - Full Duplex	Serengeti
11:00	Leya - Serengeti	DKB
12:00	AT Celaya - Etxerat taberna	Leya
13:00	Rayo Aldeano - Iriztu taberna	AT Celaya
16:00	IKP - Betrayer	New Makay
17:00	Abocajarro - New Makay	IKP
18:00	AKTA - KJ Basati	Abocajarro

### Apirilak 8, domeka Zaldibar

		Epailea
12:00	Sas T - Irati STS	Txotx
13:00	Pepelus - Txotx	Sas T


**Atsedena:** Usotz Potroak, Alai Gozokiak, Kamasutra.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
 (Legarre Pabiloia)  
 Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
 Ibilgailuak  
 Stand-ak  
 Itsasgarriak  
 Biniloa  
 Señalizazioak  
 Lonak  
 Erliebedun hizkiak



**TXIRRITA**  
 Taberna

Garagardo ona  
 Giro hobea

Gesalibar auzoa  
 Tel.: 943 79 10 35



<b>LEIBAR</b> KARINDEGIK Mitarre, 1 • Tt. 943 771379 Lorazendi, 1 • Tt. 943 791833	<b>ERRASTI</b> Kioskoa Durana, 19 • Tt. 943 799876
<b>Maritxu</b> Mertzeria Araña Ibilbidea, 24 Tt. 943 79 23 53	<b>GEMES</b> Durana, 40 Tt. 943 799918 EDERTZE ARETOA
<b>Jon</b> HARATEGIA Lorazendi, 1 • Tt. 943 79 71 69	<b>Santa Kurtz</b> Janari denda Tt. 943 79 28 19
<b>MartiW</b> ESKOPERTZIA • OINERIA Mitarre, 16 • Tt. 943 79 01 72	<b>WEINTZ</b> Enxebaren, 3 • Tt. (debatan) 943 79 78 63 (etxean) 943 79 96 84
<b>FARMA</b> BIZI Lorazendi, 6 Tfnoa-Faxa: 943 771818	<b>IRIARTE</b> Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96
<b>BEEKERGIA</b> <b>MIREN &amp; ZURINE</b> BIZI • OINERIA • ELIKADURA Otalora kalea, Eliza aurrealdean Tfnoa: 943 771357	<b>TXILARRA</b> ELIKADURA BEREZIA Durana, 15 Tt. 943 79 10 15 Lorazendi, 9 Tt. 943 79 44 28
<b>IMANOL</b> JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfnoa: 943 79 05 83	<b>Irudi</b> ELIKADURA PELAQUERIA MIXTA Ereka Barrio, 20 b • Tt. 943 798090
<b>ALBOKA</b> Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610	<b>HERRASTI</b> AKEITA ETXEA CAFES Araña kalea, 7 • Tt. 943 79 32 83
<b>ELECTRONICA</b> <b>RITZORROTZ</b> • Armatzioa eta mantentzea • Instalazio elektronikoa • Armatza, errega elektronikoa eta periferikoa • Telebista audio-iketa sistema eta kargatzailea • Gailu digitalak Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	<b>Zubia</b> Oinetakoa Paltak • Zapatak • Geryakoa Mitarre, 14 Tfnoa: 943 79 16 00
<b>NERIAN</b> LORADENDA Tfnoa: 943 79 70 66	<b>IBER</b> LOTERIA Oalora, 2 Tfnoa: 943 79 79 24

**ARETXARTEk**  
bi bikoterentzako  
bainuetxe batean  
astebukaerako egonaldia  
zozketatuko du.



**2001eko maiatzaren 11n**  
izango da zozketa



<b>MAJE</b> CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 - arigintza - - arisantia - Tfno: 943 770792	<b>IBARRA</b> ESTANKOA PRENTZA KASAMATERIALA Biskaila, 3 • Tt. 943 782377
<b>ASENSIO</b> JANTZIDENDA Mitarre, 12 • Tfno.: 943 79 10 72	<b>Lasai</b> Nolan Kanton Mugan Lazama merkatal zentroa Santa Kurtz, 24 • Tt. 943 770434
<b>Frutan eta txarkuterian</b> espezialitatea <b>Angelines</b> AUTOZERBITZUA Mitarre, 16 • Tfno.: 943 79 61 42	<b>JOSU</b> Urdaitegia Gozategia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarre, 1 • Tt. 943 77 03 08
<b>ARETXABALETA</b> Fotografia ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53	<b>Larraz</b> Pflugueta y Sabin de beltza • LUZATZEAK • MIKROFONIMENTAZIOAK • DEPLAZAO ELEKTROKO Lorazendi, 11 • Tt. 943 799079
<b>G</b> GARBITZE Lorazendi, 6, Beha • Tt. 943 79 53 61	<b>Etxabe</b> harategia Durana, 4 • Tt. 943 79 16 61
<b>Jauregi okidengia</b> Oalora, 10 Tt. 943 79 57 47	<b>REGIADO</b> OPTIKA Lorazendi, 10 • Tt. 943 79 98 21
<b>ZENIZ</b> liburudenda Herriko Plaza, 10 Tt. 943 79 75 53	<b>Gertu</b> Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarre, 10 • Tt. 943 770612
<b>ALDE ARETXABALETA</b> Murubide IFA Murubide, 4 • Tt. 943 79 91 76	<b>HAURRIK</b> Umsendeko moda Lazama merkatal zentroa, 15 Tt. 943 77 14 86
<b>MARI KARMEN</b> oinetakoa KONPONKETAK Erekarrena • Tt. 943 79 59 85	<b>Erekarrena</b> Errekararren Fruita denda Lorazendi, 10 TEL: 943 77 01 38 20550 ARETXABALETA
<b>XUME</b> Teladenda Erekarrena, 14 • Tt. 943 79 11 19	<b>1-10</b> LORAZENDI, 10 TEL: 943 77 01 38 20550 ARETXABALETA

# IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

**INGELES**  
**FRANTSESA**  
**ALEMANA**

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta CIMek beti eskaintzen dizun bermarekin
- Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat

Donostia-San Sebastián  
Zubieta, 26.  
Tel.: 943 43 31 02




Vitoria-Gasteiz  
Florida, 8A.  
Tel.: 945 15 01 55

Arrasate  
Avda. de Alava, 4.  
Tel.: 943 71 20 55

Oñati  
Olakua, 14.  
Tel.: 943 71 60 00

Uda honetan

INGALATERRA  
ALEMANIA  
FRANTZIA  
KANADA  
IRLANDA  
EE.BB.



E-mail: [secretaria@cim-idiomas.com](mailto:secretaria@cim-idiomas.com) • <http://www.cim-idiomas.com>

## Azkenekoa, baina ezin irabazi



Arrasateko taldeak, ezin izan zuen denboraldia garaipen batekin amaitu.

Arrasate Obelix errugbi taldeak agur esan dio denboraldiari, baina zapatuan jokatu-tako partiduan ezin izan zuen irabazi. Jokatzeko giro bikaina egiten bazuen ere, beste behin, zelaiaren egoera ez zen batere ona, eta hori izan zen

partiduaren aurkari nagusia. Talde sendoa etorri zen Gara-gartzara, Gaztedi sailkapenean bigarren dago eta. Horrez gain, Arrasatek sekulako arazoak ditu partiduetan hamabost lagun elkartzeko, eta jokalaria gutxiarekin ezin gauza handi-

rik egin. Lehen zatian kanpoko taldea nagusi izan zen, gehienbat, joko estatikoa gasteiztarrek menderatu zutelako, eta bigarrean joko parekatu bazen ere, markagailuak ez zuen horrelakorik adierazi, eta kanpotarrak 6-23 nagusitu ziren. Esan bezala, ligako azkenengo partidua izan zen zapatukoa, eta Arrasate Obelix laugarren geratu da. Aurreko urteetan goragoko postuetan ikusi dugu etxeko taldea, baina jokalaria gutxiarekin jardun dutenez, ez da batere emaitza txarra. Hemendik aurrera, arrasatearrek lasaigo entrenatzeko aukera izango dute, datozen hilabeteetan jokatu dituzten txapelketa eta lagun arteko partiduetarako prest egoteko.

## Azken minutuak errudun



Gasteiztarrek aurretik izan baziren ere, bi taldeen arteko aldea ez zen batere handia izan, lehen hogeitamar minutuetan ez, behintzat, eta joko aldetik ere, norgehiagoka parekatua izan zen. Beste behin ere, lesioak direla medio, Landerrek buruhauste handiak izan zituen taldea osatzeko. Partiduari ongi eutsi bazioten ere, azken laurdenean nekeak ez zuen barkatu, eta orduan aprobeixatu zuten etxekoek markagailuan aurre hartzeko. 88-79 izan zen emaitza. Hurrengo partidua egubakoitzean jokatu dute, eta partidua benetan gogorra izango da, aurrez aurre Donostia-ko Askatuak talde indartsua izango dute eta.

## GOLD VIEW KRISTAL PROGRESIBOAK MULTIOPTICASEN



URRUN



HURBIL



3 hilabetean ordaindu errekaririk gabe

Edozein distantziatara ondo ikusi ahal izango duzu

**19.500**  
pta.-tik aurrera

**MULTIOPTICAS**

**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

## Ezagutzea merezi duen kirola

Arrasate Triatloi taldea 1993an sortu zen, eta hasiera baten hiru lagun elkartu baziren ere, gaur egun, hogeitaz laguneko taldea osatzen dute. Udaletik dirulaguntza jasotzeaz gain, Lizarralde Kirolak dendak arropak ematen dizkie, eta horrekin eta euren poltsikotik jarritako diruarekin, Euskal Herrian gora eta behera ibiltzen dira. Aurten, Basauri, Oñati eta Ermuko probetan izan dira, eta emaitza onak lortu dituzte. Horrez gain, Jon Aperribai Espainiako txapelketan izan zen joan den astean. Jose Mari Barrena taldeko presidentea-



Arrasate Triatloi taldea aurkezpen egunean.

ren ustez, edozein kirolarik egin dezake triatloia, eta kirol horretan asko sufritzen dela uste bada ere, ondo pasatzeko

aukera bikaina eskaintzen du. Alde horretatik, arrasatear guztiei kirol hori probatzeko gonbita egiten die presidentek.

## Liderrari hortzak erakusten



Zapatuan, sekulako partidua ikusteko aukera izan genuen Atxabalpera hurbildu ginenok, baina ez joko aldetik ona izan zelako, baizik eta etxeko taldeak balio duena erakutsi zuelako. Partidua bikain hasi zen zuri-moreendako. Jon

Muruamendiarazek ez zuen barkatu hegaletik egindako erdiraketa bat buruz errematatzerakoan, eta etxeko taldea 1-0 aurreratu zen. Hamar minutuan Amaiak Bat taldeak berdinketa lortu, Illart Etxeberriak tibia eta peronea hautsi eta

Andoni Azpiazuri bigarren txartel horia erakutsi zion epai-leak. Raulek, ezer galtzeko ez zeukala ikusita, arriskatzea erabaki zuen, hiru defentsarekin jokatu, eta ezin hobeto asmatu zuen. Bigarren zatian joko eskasa izan zen, eta liderak ezin hamar jokalaririk menderatu. Jonek, berriz, beste erdiraketa bikain bat aprobetxatu, bi eta batekoa egin zuen, eta hortik aurrera, sufri-mendua. Julio atezainaren bigeldiketak, gogoan izatekoak biak, berdinketa eragotzi zuten, eta liderra esku-hutsik bueltatu zen Deba aldera. Eskumuin beroenak, Illart !!

## Besaiderekin mendira

Besaide mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du Añeto eta Benasque aldera. Ibilaldiak apirilaren 28tik maiatzaren 1era arte iraungo du, eta izena ematea Besaide Mendizale elkartearen egoitzan bertan egin daiteke, apirilaren 11, 17, 18 eta 19an. Argi ibili, plazak mugatuak dira eta.

## Eskuz banakako partidua



Nagore eta Olaizola Ila asteazkenean, Uarkapen.

Eguaztenean, Uarkapen izan ziren Haimar Olaizola eta Jorge Nagore, eta zapatuko partidurako materiala aukeratu zuten.

Hasiera baten, Haimarrek pelota arinagoak aukeratu zituen, eta Nagore ez zen oso gustura gelditu. Zapatuan, hortaz, Olaizola I.a eta Nagore aurrez aurre Uarkapen.

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
LUZAPENAK

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
**Larunbatetan:**  
08:00 - 14:30

**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78



Hamar urte,  
hamaika kirol!

## Hezkidetzatza? Zer da hori?

Neska-mutikoen artean, zerk sortzen du ekintza fisikoan eta kirolan interes edo parte hartze ezberdina? Zertaz ari gara aukera berdintasunaren gainean gabiltzanean? Non bila ditzakegu topiko bihurtu diren esaldi horien erantzunak? Erantzunik badute?

Galdera horiei erantzuna bilatu nahian, Gasteizko Pedagogia Aholkularitza bulegoko kide Beatriz Ugarterekin solasaldia izateko aukera izan dugu.



AKP ko kirol jolasetako neska-mutil talde bat.

**Beatriz Ugarte:** Hezkidetzatza, hain zuzen ere, bere banakotasunean, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza bezala defini daiteke, hau da, irizpide sexista jarraituz, neskak eta mutikoei egokitutako rol, balio, portaera eta abar kontuan hartu barik hezitzea. Azken baten, autonomoak izateko, gure bizitza-proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbideratzeko helburuarekin.

**- Zein izan daiteke kirolarekiko eta ekintza fisikoarekiko interesean ematen den ezberdintasunaren arazoia? Sexistak dira eskoletatik bultzatzen diren kirol ekintzak?**

- B.U.: Hor bi gauza aztertu behar ditugu: batetik, ekintza edo kirol bera, eta bestetik, ekintza edo kirola egokia izanda, zelan erabiltzen duen hezitzaileak.

Era berean, oso garrantzitsuak dira hainbat rol bete eta arau egokiak landuz, horretarako aproposak izan daitezkeen egoerak planteatzea. Ildo horretatik jarraituz, kirol jarduerak aukeratzerakoan horrelako galderak egin beharko genituzke. Jolas tradizionalak horretarako aukera zabalak eskaintzen dutelakoan nago.

Bestetik, nahiz eta ekintza bera zentzu horretan hezitzailea izan, erabilera izan daiteke sexista. Hori hainbat arrazoiengatik gerta daiteke: gurasoek, irakasleek edo monito-

reek eta komunikabideek ematen dituzten mezuek eta sortzen dituzten aukerak.

**- Eskolan jasotzen denarekiko, zein ikuspuntutik landu beharko litzateke ekintza fisikoa?**

- Aurrena, oso garrantzitsua da jeneralean hezkuntza komunitatean gai horrekiko

sentiberatasuna piztea, eta baita guraso, monitore eta, oro har, hezkuntzan parte hartzen duten guztiengan ere. Gorputz heziketak eta eskola kirolak, helburu hezitzaileak dituztenez, programatzen ditugun ekintzekin garapen pertsonalerako lagungarri diren helburuak bermatu behar dizkiogu pertsonari.

### ARRASATE KIROL PROIEKTUKO X. URTEURRENEKO EKINTZEN BARNEAN;

PARQUE COMERCIAL MENDIBIL vs  
BACOMAT ARABA  
Lehen mailako nesken saskibalo partida:  
ZAPATUA, 7, 18:00etan,  
ITURRIPEKO KIROLDEGIAN.  
Aurretik, eskola umeen 3x3 saskibalo partidak  
egingo dira.  
SARRERA DOAN.

## XV. mendeko partidaren errebantxa

Oraingo urtean, berritasun bat sartzen saiatuko dira doke txapelketako antolatzaileak, SUDC elkarteak: XV. mendean Arrasatek eta Oñatik jokatu zuten doke partidua gogoratzea proposatu diete bi udalei. Onartzen badute, bi herrietako ordezkariek aurrez aurre izango dira apirilaren 13an.

Egi edo kondaira, esaten denez, Zaldibar dokera jokatzearrekin Oñatik konteari, egubakoitz santuan, eta baita irabazi ere! Oraingoak ez du hala ondoriorik izango; baina, lehiakortasun jatorrari, behintzat, eutsiko diote.



### ELKARTEAK ETA GAZTEAK

Aurten, XXI. aldian izango da, eta ohiko ekintzak antolatu dituzte: gura duten elkarte guztiendako txapelketa, 13an, Monterron parkeko zelaietan,

10:00etatik aurrera; eta, 8an, gazteendako XVII. txapelketa jokatu da, leku berean, 11:00etan. Mondragoen tradizio handia duen jokua edozeinek jokatu ahal izango du.

## Biodantza, estresaren aurkako teknika

Estresaren aurkako teknika berrienetarikoa ikasteko aukera izango dugu Arrasaten: biodantza. Maiatzaren 5ean hasiko da Gazte Sailak antolatutako ikastaro hori, eta zapaturo egingo da, arratsaldetan. Fernando Martinez de San Vicente gasteiztarrek zuzenduko du tailerra.

### NORBERAREN ESTIMUA


Izenak nahasmena sor dezakeen arren, dantza soila baino gehiago, nor bere adierazpena lantzeko bidea da biodantza. Musikaren eta mugimenduaren bidez, giro ludiakoan, bizitasuna, sormena eta norberaren estimua lantzen dira.

Rolando Toro txiletarrak sortu zuen Biodantza, orain 30 urte; baina, Europara, 1988an iritsi zen. Edozeinek esku har dezake: gizon eta emakumeek, adin muga barik, elkarrekin egiten dituzte ariketak.

Arrasate Musikalen emanngo dira eskolak. Matrikulak 4.000 pezeta kostatzen du.

## Argentinako gitarra soinuak Amaian

Juan Falu gitarrista argentinarrak kontzertua eskainiko du hilaren 10ean Amaia antzokian, Arrasate Musikalek antolatuta. Gitarrista eta konposatzaile horrek Argentinako doinuak jorratzen ditu. Gainera, musika katedradun eta Argentinako generoetan aditua ere bada. Argentinarrak gitarra estiloak sakonki ezagutzen ditu Faluk, eta askatasun osoz



jotzen ditu.

### BESTE KONTZERTUAK

Horrenbestez bukatuko da akademiak martxoan hasi zuen musika ziklo txikia.

Egunotan, Arrasate Musikalek beste bi emanaldi eskainiko ditu: apirilaren 6an, ikasleek emango dute kontzertua; eta 10ean, biolin eta tronboi saioa izango da.

X Ezkontzak

X Bataioak

X Jaunartzeak

X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

# BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAleta

Tel.: 943 79 24 58



## ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna

Osakidetzarekin eta Lagun-Aroekin hitzartua

### Plantilak • Oinetakoak

- ☒ Oin delikatuak
- ☒ Diabetikoak
- ☒ Deformidadeak
- ☒ Umeentzat zuzentzailea



RPS 421/97

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

JOSU IZQUIERDO (ARRASATE MUSIKALEKO LEHENDAKARIA)

## «Nire lana? Daukagunari eustea»

Josu Izquierdo iruindarrak urte asko daromatza Mondragoen. Hezkuntza dihardu, eta gaur egun, institutuko irakasle dugu. Baina, joan den astea ezker, beste kargu bat ere badu: Arrasate Musikaleko lehendakari berria da.

### — Zelan ikusten duzu gaur egun Arrasate Musikal?

— Sortu zenetik, orain 29 urte, Arrasate Musikalek hezkuntza zabala eskaini du, eta profesional on asko eman ditu. Gaur egun, 800 bazkidek, 500 ikaslek eta 32 irakaslek osatzen dute Arrasate Musikal. Ikasleek osatutako 11 musika talde daude. Eskolak emateaz gain, instrumenturen bat ikasten dihardutenek ere praktikak egin ditzakete egoitzan, eta Goikobaluk, Izaskun Murgia Lirika Elkarteak eta beste hainbat taldek ere hemen egiten dituzte entseguak. Oro har, profesional asko ditugu, ilusioz lan egiten dute. Hori da gaur egungo egoera.

### — Lehendakari moduan, zeintzuk izango dira zure lehentasunak?

— Arrasate Musikaleko estatutuek ezartzen dute helburu moduan musika-kultura sustatzea, eta hori eskolen bidez eta kontzertuak, entzunaldiak, hitzaldiak... eta beste ekintza batzuk antolatuz egiten da. Hortaz, nire egiten ditut helburu horiek. Ahalik eta eskaintza zabalena ematen saiatuko naiz, eta ahal dena hobetzen. Hainbeste jende bateratzea zaila da, baina funtzionamendua ona dela deritzot; hortaz, ez dut aldaketa sakonen beharrik ikusten.

### — Zein izango da zure lehenengo eginbeharra?

— Nire ustez, beti hobetzera jo behar dugun arren, daukaguna ondo dago, eta horri etsi egin behar diogu. Bestalde, musika ekitaldiak egiten direnean, parte hartzera animatuko nituzke herritarrak. Batzuetan, horren falta sumatzen dugu.



### — Zertan da Arrasate Musikalen egoitza berriaren auzia?

— Hori udalaren esku dago. Udalak beti babestu izan du Arrasate Musikal, kudeaketaren zati bat darama, batzordean zuzendariak ditu... Ez dut zalantzarik oso ondo planifikatuko dela eta Arrasate Musikali merezi duen egoitza emango diola udalak. Bestalde, egia da gaur egungo eraikina ez dagoela behar bezain txukun, baina badakigu Zerrajeran egiten diharduten lanak beharrezkoak direla, eta eragozpen hauek jasan behar ditugula. Baina, aldi baterako egoera da, eta badakigu azkenean udalak ganorazko egoitza emango digula.

### — Ekonomia aldetik, zein da zuen egoera?

— Gaur egun, Arrasate Musikal guztiz saneatuta dago. Baina horrela jarraitzeko, oraingo baldintzei etsi behar diegu, alegia, bazkide kopurua, udalaren babesa... azken baten, oso garrantzitsua dena; eta hainbat lagun eta enpresak ematen diguten laguntza. Horiek galtzen ez baditugu, gure egoera ona izango da.

## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

- Nekazaritza eta arrantza arloan ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: apirilak 24.
- Eusko Jaurlaritzaren eskutik, kontsumoaren arloan hezkuntza edo ikerketarako dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

### ■ LANA

- Eibarko Udalako kultura laguntzailea behar da. Epea: apirilak 11.
- Eibarko Udalak udaltzainak behar ditu. Epea: apirilak 14.

### ■ IKASTAROAK

- Arrasateko INEMek hainbat ikastaro antolatu ditu: geriatria laguntzailea, soldadura, diseinu grafikoa, internet has-tapena...
- Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, bio-dantza ikastaroa, nor bere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestimua lantzeko ikastaroa. Maiatzean, zapatu arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara. Matrikula: 4.000 Pta/2.500 ikasle edo langabeendako.
- Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa, zapatu goizetan, 10:30etik 13:30era. Maiatzaren 5etik ekainaren 16ra.

### ■ UDALEKUAK

- Euskal Udalekuak: Abai-gar, Bernedo, Goñi edo Urdirutzen egonaldiak egiteko aukera. Epea: apirilak 20.
- Foru Aldundiaren eskutik, 14-17 urte artekoendako programa: aisia, kirola, ingele-sa eta hainbat tailer egiteko aukera. Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

« Oraingo, funtzionamendua ona dela deritzot; hortaz, ez dut ikusten aldaketa sakonen beharrik »

## Musakolan erretiratu talde handia, baina egoitza txikia



Musakolako erretiratuen etxeak 20 urte beteko ditu aurten (1981ean sortu zen). Hortaz, ibilbide luzea egin du Mondragoen. Bazkideak ere asko dira, 560 bat lagun, baina erretiratu talde handi horren egoitza txiki geratu da. Ez dira kabitzen, ez orain, ezta lehen ere, eta beste egoitza baten bila hasi ziren aspaldi. Horixe kontatu digute Andres Indak, egoitzako presidenteak, eta Jose Ramon Petreñasek, idazkariak. "Esaterako, pasa den egubakoitzean, urteko batzarra izan genuen eta 70 bat lagun elkartu ginen, eta asko kanpoan

geratu behar izan ziren..." Eta horixe gertatzen zaie egiten dituzten ekintza gehienekin.

Horrez gain, zaharkitua geratu zaie egoitza: "Komunak, taberna, sukaldea... guztia geratu zaigu txiki eta zahar".

### UDALAREKIN BERBETAN

Duela lau bat urte, San Antolin eskolak erabiltzea proposatu zuten erretiratuek, baina udalak ez zuen hori onartu. Udalak, berriz, oraingo egoitzaz gain, San Isidro elizako aretoa erabiltzea proposatu zuten ekintzak egiteko. Eta orduan, erretiratuek ezezkoa

eman zuten, traste guztiakin alde batetik bestera ez ibiltzearren. "Proposamen hori onartzeko prest gaude, baldin eta egoitza osoa San Isidro elizaren ondoan egiten bada".

Geroago, 1999ko hauteskundeetan, alderdi politiko guztien programan jaso zen Musakolan erretiratuendako etxe berria egiteko asmoa, eta urte hartako aurrekontuetan diru partida bat ere onartu zuen udalbatzarrak. Eta aurtengo aurrekontuan ere, nahiz eta diru kopuru zehatzik ez egokitu, udalbatzarrak onartu egin zuen Musakolan egoitza berria

egiteko aurreneko pausoak egitea. Are gehiago, udaletik erretiratuei gaineratutakoaren arabera, 2001eko lehenengo hiruhilabetean zehaztu behar zituzten xehetasunak.

### ARAZOAK

Baina, iaz arazoak hasi ziren. Batetik, Doñostiako artzapezikua aldatu egin zen (Setien-Uriarte). Jakina, artzapeziku-barrutiak eman behar du baimena San Isidroko elizan lanak egiteko. Edozelan ere, artzapeziku berriak baiezkoa eman zuenean, udaletik jakinarazi zieten egoitza beste nonbait jartzeko asmoa aztertzen zihardutela.

Urteko lehen hiruhilabetea igaro da, eta Musakolako erretiratuei udalak jakinarazi dienez, asmo guztiak bertan behera geratuko dira harik eta maiatzeko hauteskundeak pasatu arte. Eta hori ez zaie batere gustatu Musakolako erretiratuei.

Amaia Larrañagak, ongizate gaiez arduratzen den zinegotziak, adierazitakoaren arabera, "aukera egokiagoa bilatzen dihardugu, baina oraindik ez dago ezer zehatzik. Eta jakina, hauteskundeak igaro arte, inor ez da ausartzen ezer egiten".



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# MUren Mendeberrri proiektua

Mondragon Unibertsitateko arduradunek Mendeberrri proiektuaren aurkezpena eginen dihardute azken hilabeteetan. Hain zuzen ere, Donostian, Iruñean eta Gasteizen aritu dira Mendeberriren, MUko plan estrategikoaren eta unibertsitateak betetzen duen eginkizunaren berri ematen.

Hitzaldi horietan, MUko errektore nagusi Jabier Retegik beste hainbat zuzendari, ikastetxee arduradun, guraso, ikasle eta irakasleri azaldu dizkie Arrasaten sortutako unibertsitatearen plangintza berriak eta horien nondik norakoak.

Izatez, Mendeberrri proiektuak irakaskuntza tradizionalaren ereduaren berrikuspenera dakar, eta era berean, egungo gizarteak jasaten dituen aldaketekin bat egiteko ahalgina ere, horiei ahal bezain ondo erantzunez.

Gainera, Jabier Retegik Mondragon Unibertsitatearen plangintza estrategikoa azaltzen dihardu. Datozen zortzi urteetan bete dadin aurrez ikusita dago, eta 16 helburu nagusi dauzka. Helburuok bete ahal izateko, 16 lantalde osatu dituzte. Funtsean, plan estrategiko horren arabera, unibertsitateak egungo gizartearen dauden



eskaerekin bat egin eta parte hartzearen aldeko jarrera hartu behar du.

## MUREN BILAKAERA

2000-2001. ikasturtean, MU unibertsitate ikasketak egiteko matrikulatu diren ikasleen kopurua %13,75 hazi da, aurreko urteko datuekin alderatuz. Hain zuzen ere, oraingo ikasturtean 3.185 ikaslek dihardute unibertsitate ikasketak egiten.

Hazkunde horren arrazoietako bat lizentziatura berrien eskaintza da; izan ere, Psikopedagogia sartu dute eta horrez gain, Ingeniaritza Industrialaren, Informatikoaren eta Humanitateen bigarren zikloak prestatu dituzte.

Era berean, 1999-2000. ikasturtean, MUko 928 ikasleek enpresatan praktikak egiteko aukera izan dute Aleco enpresaren bitartez.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel.: 943 79 48 77 ▪ ARRASATE



## ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



# Apirilaren 17an itzuliko da Arrasate Irratia

Bihar, zapatua, Arrasate Irratiko esatari eta teknikariek oporrak hartuko dituzte, eta apirilaren 17a arte oporretan izango dira. Hala ere, badakizu irratia horrek ez duela etenik egiten, eta musika egun guztian izango da lagun. Bestalde, erantzungailua ere lanean izango da, eta mezuren bat utzi gura izanez gero, deitu 943-71 17 31 zenbakira.

Arrasate Irratia apirilaren 17an, martitzena, bueltatuko da lanera, eta ohi bezala, saioak entzungai izango dira goizez eta arratsaldez. Baina, kolaboratzaileek hilaren 23a arte izango dute jai, eta hortaz, ordu arte ez da gaueko tarterik izango.

## PLANING PREST

Oporretarako planak eginak izango dituzue, baina badira gurean planak egiten laguntzen digutenak ere. Egubakoitzero, Ainhoa Landak eta Deiane Arrietak *Planing Prest* saioa egiten dute. Tarte horretan, asteburuari begira antolatutako ekintza guzti-guztien erreperaso egiten dute, hau da, aisialdi-



rako pista batzuk ematen dizkigute eta ikastaroen berri ere eskaintzen dute. Zelan ez, hori guztia, musika lagun. Ainhoak 17 urte ditu eta eskoriatzarra da. Deiane, berriz, atxalbatarra da eta 17 urte ditu. Biek Almenen ikasten dute, eta orain dela hiru urte hasi ziren Arrasate Irratian kolaboratzaile lanean.

## Oporretatik bueltan, telebista berbagai



Gaur egun, telebistan telesail ugari dago, eta horien gaineko berbaldia izango dugu

apirilaren 18an, eguaztenean, 10:15etik aurrera. Horretarako, telebista gertutik bizi duen lagun batengana jo dugu, Anuska Lasarengana, hain zuzen. Baina, irratiko lagun bat ere elkarrizketatuko dugu: Edu Abasolo. Eduk *Gran Hermano* saioan egiten du lan, eta berak kontatuko dizkigu bigarren itzuliko bitxikeriak.

Bestalde, gogora ezazue martitzenean, apirilaren 17an, ingurumena eta base-ria izango direla berbagai, besteak beste.



### ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren erreperaso.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

### ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

### MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

### EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

### EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakaten.

### EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

### ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrierietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •  
Erradapiak • Leihoak • Ateak •  
PVCko leihoak •  
Aluminiozko leihoak •  
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxe: 943 79 01 82

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



**G**azteluondora goaz oraingo asteko argazki zaharrarekin. Mendiatarren jauregiko terrazan dago aterata, Gazteluondon, hain justu. Ikusten den moduan, neskati-la batek landare eta fruitu sor-

ta bat dauka eskuetan. Izan ere, 50eko hamarkadako Erramu Eguna zen, eta orduan ohitura zen fruituak eta landareak bedeinkatzera eroatea, gero ortuan sartzeko.

Hauexek dira argazkikoak: aurreneko emakumea, Felisa Uribetxebarria "Eperra", eta

bestea, haren ahizpa, Margarita Uribetxebarria. Besoetan daukan umetxoa, berriz, Arantza Otadui da.

Umeen artean, landare sorta duen neskati-la Mari Carmen Otadui da, haren ondokoa, buruan txoria duena, Isabel Mondragon, eta hurrengoa,

Lourdes Egidazu. Aurre-aurrean dagoen mutikotxoa, ostera, Ramon Mondragon da, eta eskutik oratuta duen txikitxoa, Manolo Mondragon.

-----  
*Argazkia:* Venustiano Uranga.  
*Berriemailea:* Tere Egidazu.

## ADI! HELBIDE BERRIA DUGU

**Orain, San Andres 10 D.an gaude. Gasolindegia ren parean.**

**TAKOLO AUTOAK**

53 P.K Tel.: 943 79 05 86. ARRASATE



**OPEL** 

**Almera**  
*Tino*



## ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN DIRA. DAGOENEO EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO IRAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDOTA

JOKUAK GORDETZEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURTASUNA EMATEN DUEN AUTOA, ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERDINAREKIN. BERAIENTZAT NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA... HORRELAKOA DA NISSAN ALMERA TINOA. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
2.2 Di COMFORT	2.834.000 pta.
2.0 AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



**Almera  
gama  
zabala...**



SEE THE CHANGE

**5** URTEKO  
BERMEA  
KM. MUGARIK GABE

**ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera\***  
**ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera\***

\*Jendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistancia barne eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), barne. Penintsularako eta Balearretarako baliagarria.



**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

**ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR**

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxa. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com





**ETXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**




**RKUZ**  
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**



**RKUZ**  
ELEKTRAGAILUAK


Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**

**expert** 



**RKUZ**  
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABAETA**

**FAGOR** 

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**